



Begarako  
Udala

**2012KO MARTXOAREN 31AN ERRAMU ZAPATUKO FERIA DELA ETA,  
SEMINARIOKO PATIOAN JARRIKO DEN TXOSNAREN USTIAKETA  
ARAUTUKO DUTEN BALDINTZAK**

**1. Deialdiaren xedea:**

2012ko martxoaren 31an Seminarioko patioan Udalak jarriko duen txosnaren ustiaketa adjudikatzea da deialdi honen xedea.

Txosna honen xedea da feria egunean **TALOAK** saltzea.

**2. Eskaerak:**

Begarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultura edo kirol elkarteek, herri-taldeek eta ongintzako elkarteek aurkez ditzakete eskaerak.

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera. Eskaera idatziz aurkeztuko da eta bertan azaldu beharko da baldintza-orri hauek jasotzen dituzten betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela.

Eskaerak aurkezteko epea **MARTXOAREN 16n**, 13:30ean bukatuko da.

**3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak.**

- a) Txosnan taloa salduko da, osagarriekin lagunduta; eta txosna hartu nahi dutenek ziurtatu egin beharko dute taloak egiten dakitela, adieraziz nortzuk egingo dituzten eta noiz eta nola ikasi duten. Taloak txosnan bertan egin beharko dira
- b) Jendaurrean lan egin behar dutenek euskaraz hitz egiten jakin beharko dute.
- c) Goizean 11:00etarako zabaldu eta eguerdiko 15:00etarako itxi beharko da.
- d) Txosna bera utzitako baldintza berdinetan bueltatu beharko da eta egunean bertan arratsaldeko 17:00etarako garbi eta libre utzi beharko da.
- e) Udalarekiko harremanetarako, adjudikazio-hartzaileen ordezkaria eskaera sinatu duena izango da, ez badute beste bat izendatzen behintzat.

Izendapen hori idatziz egin beharko da eta Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko da, adjudikazioaren berri jasotzen dutenetik 5 egun naturaleko epean.

- f) Txosnan, beste batzuen artean, TALOA osagarriekin saldu beharko da (txorizoa, hirugiharra, txokolatea...); ardo berezi, sagardo, ur botila txiki, mosto edo antzeko edariarekin lagunduta saldu beharko dute. Bi produktu horien prezioa, guztira, gehienez ere **5 eurokoa** izango da.

Edari gabe ere saldu ahal izango da TALOA eta kasu honetan salmenta prezioa gehienez ere **4 eurokoa** izango da.

- g) Egun horretarako behar den generoa batzeko, adjudikazio-hartzaileek bestelako behin-behineko instalazio edo eranskinik beharko balute, beren kontura muntatu eta kendu beharko dute, aurrez okupazioa zelakoa izango den Udalean jakinarazi beharko dutelarik. Instalazio hori ere txosna husteko epe berean kendu beharko dute.

h) 375 euroko fidantza jarri beharko dute.

#### **4. Adjudikazioa**

Ustiaketaren adjudikazioa zozketa bidez egingo da, martxoaren 19an 12:00etan, Udaletxe honetan.

Eskaera aurkeztu dutenen artean egingo da zozketa; aurkeztu diren guztiak aterako dira eta atera ahala zerrenda egingo da.

Ustiaketa konpartitzea posible izango da baldintza hauekin:

1. Zozketaren arabera adjudikazio-hartzaile suertatu direnen oniritzia beharko da.
2. Zozketaren ondorioz egindako zerrenda errespetatu beharko da; hau da, konpartitzeko preferentzia izango dute 2.ek, 3.ek eta abarrek.
3. Konpartitzea erabakitzen badute, horren berri eman beharko dute Udaletxean.

#### **5. Udalaren betebeharrak**

Jarriko den txosnaren alokairuaren kostua Udalaren kontura izango bada ere, ura eta argindarraren premia izanez gero, eramateko egin beharreko lanen kostua eta kontsumoen kostua adjudikazio-hartzaileen kontura izango da.

#### **6. Ustiatzeko eskubidea:**

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du ustiatzeko eskubidea beste edozein talde, elkarte eta abarri zeditu; baina Eusko Labela duen Baserriko oilaskoa saltzeko jarriko den txosna ustiatzeko zozketan ere adjudikazio-hartzaile suertatuko balitz bera edo berak ordezkatzeko duen taldea, bietako bat aukeratu beharko du 2012ko martxoaren 22rako.

Interesik ez balu, 2012ko martxoaren 21erako Bergarako Udalarari idatziz jakinarazi beharko lioke, eta zozketan erreserbarako atera denari adjudikatuko zaio.



Begarako  
Udala

**CONDICIONES QUE REGIRÁN LA EXPLOTACIÓN DE LA CHOZNA QUE SE COLOCARÁ EN EL PATIO DEL SEMINARIO CON OCASIÓN DE LA FERIA DE SÁBADO DE RAMOS EL DÍA 31 DE MARZO DE 2012.**

**1. Objeto de la convocatoria:**

Es objeto de la presente convocatoria la adjudicación de la explotación de la chozna que instalará el Ayuntamiento en el patio del seminario el 31 de marzo de 2012.

Esta chozna tendrá por objeto la venta de TALOS durante el día de feria.

**2. Solicitudes:**

Podrán presentar sus solicitudes todas las entidades culturales, deportivas, organizaciones populares y asociaciones benéficas bergaresas sin ánimo de lucro.

La solicitud deberá ir firmada por una persona mayor de edad y con plena capacidad de obrar. Las solicitudes se presentarán por escrito, debiendo manifestar en ellas que conocen y están dispuestos/as a cumplir todas las obligaciones recogidas en los presentes pliegos de condiciones.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 16 de marzo, a las 13:30 horas.

**3. Obligaciones de la parte adjudicataria.**

- a) En la chozna se venderán talos, con sus complementos; de modo que las personas que quieran optar por la chozna deberán acreditar que tienen conocimientos sobre su elaboración, debiendo señalar quiénes los van a elaborar, así como fecha y lugar donde han aprendido a hacerlos. Los talos se elaborarán en la misma chozna.
- b) Las personas que trabajen de cara al público deberán saber euskera a nivel hablado.
- c) La chozna se deberá abrir para las 11:00 horas y cerrarse para las 15:00 horas
- d) La chozna se deberá devolver en las mismas condiciones en que se entregó, limpia y libre para las 17:00 horas del mismo día.
- e) La persona interlocutora ante el Ayuntamiento será quien firme la solicitud, salvo que sea designada otra.

Dicha designación se realizará por escrito y se presentará en la Secretaría Municipal en el plazo de 5 días naturales desde la notificación de la adjudicación.

- f) En la chozna, entre otros, deberá ofrecerse talo acompañado de complementos (chorizo, tocineta, chocolate...), junto con un vino especial, sidra, botella de agua pequeña, mosto o bebida similar, que se venderá por un precio total máximo de **5 euros**.

Así mismo deberán ofrecer el talo con complemento a elegir y sin bebida por un precio máximo de **4 euros**.

- g) Si los/las adjudicatarios/as necesitan alguna otra instalación o anexo provisional para almacenar el género para ese día, deberán montarlo y desmontarlo por su cuenta, comunicando previamente al Ayuntamiento las características de dicha ocupación. La instalación deberá ser retirada en el mismo plazo concedido para la retirada de la chozna.
- h) Deberán depositar una fianza de 375 euros.

#### **4. Adjudicación:**

La adjudicación de la explotación se hará por sorteo, el día 19 de marzo a las 12:00 horas en el Ayuntamiento.

El sorteo se realizará mediante la extracción de todas las solicitudes presentadas, elaborándose una relación según el orden en que se vayan extrayendo.

Existe la posibilidad de compartir la explotación con las siguientes condiciones:

1. Se requerirá la conformidad de quienes hayan resultado adjudicatarios/as en el sorteo.
2. Se respetará la relación derivada del sorteo; es decir, tendrán preferencia para compartir quienes hayan quedado en 2º lugar, en 3º, etc.
3. En caso de que decidan compartir la adjudicación, deberán comunicarlo al Ayuntamiento.

#### **5. Obligaciones de Ayuntamiento**

Respecto a la chozna que se ha de instalar, el coste de su alquiler correrá a cuenta del Ayuntamiento; sin embargo, en caso de necesitar agua y luz, el coste de los trabajos precisos para su suministro, así como los consumos, correrán por cuenta de la parte adjudicataria.

#### **6. Derecho de explotación:**

La parte adjudicataria no podrá ceder el derecho de explotación a ningún otro grupo, asociación etc; pero, en caso de que dicha persona, o el grupo al que representa, resulte así mismo adjudicataria en el sorteo para la explotación de la chozna de venta de **POLLO DE CASERIO CON EUSKO LABEL**, en ese caso deberá elegir uno de los dos puestos antes del 22 de marzo.

En caso de que no estar interesado/a, deberá comunicarlo por escrito antes del 21 de marzo de 2012 al Ayuntamiento de Bergara, que adjudicará la explotación a la solicitante que ha quedado en reserva en el sorteo.



Begarako  
Udala

**2012KO MARTXOAREN 31KO ERRAMU ZAPATUKO FERIA DELA ETA,  
SEMINARIOKO PATIOAN TALOAK SALTZEKO JARRIKO DEN TXOSNA  
USTIATZEKO ADJUDIKAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKARIA**

**ESKATZAILEA**

Izena eta abizenak \_\_\_\_\_

NAN ZENBAKIA/ \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Norbere izenean

Honen izenean: \_\_\_\_\_  
IFZ / DNI zk.a: \_\_\_\_\_

**Helbidea, jakinarazpenetarako**

\_\_\_\_\_

**Helbide elektronikoa jakinerazpenetarako:**

Eskaera-orri hau aurkezten duenak, eta ordezkutzen duen taldearen izenean, hauxe azaltzen du:

*2012ko martxoaren 31an Seminarioko patioan jarriko den txosnaren ustiaketa arautuko duten baldintzak ezagutzen dituela eta adjudikazio-hartzaile suertatuz gero baldintza guztiak betetzeko konpromisoa hartzen duela.*

Begara, 2012 ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ a.

**OHARRA:** Eskera-orri honetako datu pertsonalak dagokionaren onespenearekin jasotzen dira eta Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxategietan sartuko ditu. Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15 / 1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.-San Martin Agirre plaza, 1.- 20.570 Bergara.